



EUSKARA ZERBITZUA

Arangurengo Ibarra

4 Zk. 2009 iraila-abendua

Informazio Buletina

LARUNBLAI

Aranguren Ibarreko Udalak, Iruñerriko beste Udal batzuekin eta Topagunearekin batera, euskarazko aisialdi eta talde iraunkorrak martxan jartzeko asmoa du. Lerro hauetan aisialdi talde horietako begiraleak izango diren Naiara Ibero eta Andoni Sanchez ezagutzeko aukera izango dugu.

Zein edo zeintzuk izango dira aisialdi talde horien bidez lortu nahi diren helburuak?

Guretzako helbururik garrantzitsuenak, eta zailtasun gehien duena, euskararen erabileran eragitea litzateke. Nahiz eta Aranguren Ibarreko hainbat haur eta gazteek euskaraz ikasten duten, hizkuntzaren erabilera txikia da. Joera hori aldatzen saiatzeko sortu da aisialdi egitasmo hau. Zailtasun gabe, gure metodoa, euskara, ongi pasatzearekin, lagun berriak egitearekin eta asteburuarekin lotzea litzateke. Hizkuntza tresna da, harremanak egiteko eta ongi pasatzeko erabiliko duguna.

Egitasmo hau martxan dago Nafarroako beste herri batzuetan ere. Ba al dakizue zein izan den herri horietako dinamika?

Berez, egitasmo hau Atarrabian sortua da, Atarrabiako Karrikaluzeko Elkartearen eskutik. Beraiek zortzi urteko eskarmentua dute eta nahiz eta hasieran talde txiki batekin hasi ziren, gaur egun, 100 bat haur eta gazte dabilta asteburuetan beraiekin. Aurten sei herri zein bailara desberdinetan abiatuko da egitasmoa: Aranguren, Ultzaman, Berriozarren, Burlatan, Etxaurin eta Bortzirietan, herri baitoiztaren berezitasun zein zailtasunak kontutan izanda.

Nola egokituko da egitasmo hori Arangurengo errealitatera?

Hasteko, eta egitasmoaren ardatz bezala gu gaude, begiraleak. Bertakoak gara, eta nola ez, haurrak eta euskara gustuko ditugu! Gure ustez garrantzitsua da begiraleak Ibarrekoak izatea, horrela elkartuko garen egunez gain, bestela ere parte hartzaileentzako erreferentzialak izango baikara. Bestaldetik, badakigu egitasmo baten oinarria sendoa izateko, pixkanaka eta presarik gabe hasi behar gara, beraz, ikasturte honetan gehienez 20 haurretako talde bakar batekin hasiko gara eta helburua da, urtez urte, talde berriak sortzen joatea, adinak eta beharrak kontutan hartuz. Udaleko lokaletan egingo ditugu ekintzak, Mutiloabeitiko kontsultategiko beheko solairuan.

Zeintzuk izan behar dira aisialdi talde hauetan parte hartzeko haurrak izan behar dituen ezaugarriak edo bete behar dituen baldintzak?

Haurrak Ibarrean bizi beharko du eta D ereduko Lehen Hezkuntzako 3. edota 4. mailan egon. Horrez gain, ongi pasatzeko gogoia izan beharko du... azken hau ezinbestekoa da!!

Zein izango da Arangurenen sortuko diren talde horien dinamika?

Irailean izenematea izango da baina urrian hasiko gara ekintzarekin. Printzipioz, **larunbateroko** ekintza da, **16:30etatik 18:30etara**, baina eskola egutegia kontutan hartuko dugu, beraz, zubi eta oporretan ez dago saiorik. Saioretan **eskulanak, jolasak, kirolak eta tailer ezberdinak** egingo ditugu, eta aukera izateko **ateralditxoren** bat ere egiten saiatuko gara. Honetaz aparte, aisialdi egitasmoak martxan jarri diren herri horiekin koordinatzaile baten bidez harremana izango dugu, eta horrek asko aberastuko du Arangureneko taldea.

Zer egin behar da aisialdi talde honetan izena emateko?

Egitasmoaren berri irailaren hasieratik zabalduko da, Udaleko webgunearen eta telebistaren bidez eta kartel eta eskuorri batzuen bidez. Izen emateko orrialdea bete eta **irailaren 15, 16, 17 eta 18an** Euskara zerbitzura eraman besterik ez da egin beharko, edo bertara deitu goizeko 8:00etatik 15:00ak arte. Hurrengo egunetan, haurrak lekua ote duen jakinaraziko da.



HAURRAK

LARUNBLAI

Euskarazko aisialdi talde egonkorak. D ereduko Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrentzako.

Urriaren 3tik aurrerako larunbatak, 16:30etik 18:30era.

Kontsultategiko beheko aldean (Mutiloabeiti).

Izen emateak: irailak 15, 16, 17 eta 18, Euskara Zerbitzuan, 9:00etatik 14:00etara. Lehentasuna izango dute Ibarreko haurrek.

Kuota: 30 € urritik aurrera. Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.

LUDOTEKA

4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako. Asteazkenetan (ele bitan), ostegunetan (euskaraz) eta ostiraletan (ele bitan), 17:15etik 19:15era. **Irailak 22tik aurrera.**

Idoi plazako lokaletan. **Izen emateak:** Idoi plazako lokaletan bertan, irailak 22tik aurrera (Irekiera festa eta txokolata-da).

Kuota: 24 €/ urteko, 6 €/ hileko. Informazio gehiago Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan: 948 15 13 82

HAURRENTZAKO IGERIKETA

Mailak: **Hastapena 0, Hastapena 1 eta Behe mailako hobekuntza.**

Ostiralak.

Izen emateko epea: irailak 21etik aurrera irekita 012an.

Informazio gehiago Kirol Zerbitzuan: 948 24 68 50.

PILOTA (ELE BIZ)

5 urtetik aurrerako haurrentzako.

Astearte eta ostegunak, 17:30etik 19:00etara.

Izen emateko epea: irailak 21etik aurrera irekita 012an.

Informazio gehiago Kirol Zerbitzuan: 948 24 68 50.

EUSKAL DANTZAK

6 eta 9 urte bitarteko haurrak.

Astelehenak, **urriak 5etik aurrera, 17:30etik 19:00etara.**

Kultur Etxeko Ludoteka aretoan.

Izen emateko epea: irailak 21etik 25era, 9:00etatik 14:00etara, Euskara Zerbitzuan.

Kuota: Erroldatuak 10 € eta erroldatuak 30 €.

Mugatutako plazak:

- Gutxienez 10 haur, gehienez 22.
- Parte hartzaileen zerrenda izen emate hurrenkeraren arabera osatuko da, taldeak osatu arte.
- Erroldatu gabeak zuzenean itxaron zerrendara

pasako dira. Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



2008/9 Ikasturteko taldea

ESKOLA LAGUNTZA

Lehen Hezkuntzako 4.,5. eta 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako haur eta gazteen-entzako.

Astearteak, **urriaren 6etik aurrera**, ikasturte osoan zehar.

Doako jarduerak Gizarte Zerbitzuekin eta San Pedro Ikastetxe Publikoarekin batera elkarlanean.

Plazak: 20 Lehen Hezkuntzarako eta beste 20 Bigarren Hezkuntzarako. Ibarrean erroldatutako edo San Pedro Ikastetxe Publikoko ikasleentzako.

Izen emateak: irailaren 25era arte.

Lekua: Aranetxea
Jarduera hasi aurretik gurasoekin bilera bat egingo da.

OLENTZERORAKO KARTELEN LEHIAKETA.

Ibarrean errolatutako edo San Pedro Ikastetxe Publikoko Lehen Hezkuntzako 1.-6. mailetakoko ikasleentzako.

Aurkezteko epea: deialdia argitaratzen denetik **abenduaren 14era** arte. 13:00era arte.

Aurkezteko lekuak: Udaletxeko bulegoak, San Pedro Ikastetxe Publikoko atezaintza, Kultur Etxea.

Saria: 50 € material didaktikoan.
Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



2008ko kartel irabazlea.

IPUINKONTALARIAK

- LUR KORTA: "Ipuin borobilak"

Urriak 21, asteazkena, 18:00etan Kultur Etxeko Ludoteka aretoan.

- VENTURA RUIZ: "Denok ezberdinak gara"

Azaroak 18, asteazkena, 18:00etan Kultur Etxeko Ludoteka aretoan.

Doako sarrera.

GAZTE ETA HELDUAK

EUSKARA IKASTAROAK

18 urtetik gorakoentzako.

Izena emateko epea: irailean zehar.
Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



Juan Valdes eta bere familia Euskafé poteak eta informaziorako orribikoak banatzen Burlatako azokan. Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuen kanpainaren irudi bat.

EUSKARA IKASTEKO BEKAK

Ibarrean errolatutako pertsonentzako.

Eskaerak aurkezteko epea: urriak 7, 14:00etan.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.

MINTZAKIDE

Mintza taldeak euskaraz.

Taldeak sortzen dira ondorengo pertsonen artean:

- euskaraz hitz egiteko jarioasuna lortu nahi dutenak

- gustuko duten hori egiten duten bi-



tartean beste batzuei euskara hobetzen lagundu nahi dietenak.

Izen emateko epea: urriak 1etik 26ra.

Informazio hitzaldia eta pikotoea: urriak 8an, osteguna, 20:00etan, Aranetxean.
Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan, <http://www.blogak.com/mintzakide-n>, edo egitasmoaren koordinatzaileari galdetuz: 948 96 05 16.

FILM LABURREN BILDUMA

Proiektzioa eta solasaldia. Gai ezberdinei buruzko euskarazko film laburrak: bakardadea, perfekzioa, insomnia, errespetua, bikotea, patua, bidaiak, lapurretak...

Urriak 16an, ostirala, 20:30ean Kultur Etxeko Auditorioan (Mutiloagoiti).

Zuzendariak: Eider Rodriguez, Iban del Campo Uribarrena, Asier Urbietta San Martin, Jose Luis Barredo, "Ostegunean afaria zure kontu", PuntutapArte taldeak... eta askoz gehiago.

MIKOLOGIA TAILERRA

Mikologiaren mundura hurbilpen teoriko-praktikoa.

Tailerra ordu eta erdiko bi saio teorikoz (**urriak 15 eta 29**, ostegunak, 20:00etan, Ibaialdeko lokaletan) eta **bi irteeraz** (**urriak 17 eta 31**, larunbatak, 9:00etan adosteko lekuan) osatuko da. Irteerak Ibarreko pinudi, pagadi eta hariztiara egingo dira.

Urriak 31an, larunbata, Arangurengo TORRANO elkartearen bildutakoa sukaldatzeko **errezeta** goxoren bat ikasi eta dastatu ahalko dugu.

Emalea: Angel Iriso (Gorosti elkarte)

Izen emateko epea: urriaren 9ra arte, ostirala, 14:00etan, Euskara Zerbitzuan.

Prezioa: 10 €.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.

KANTU TAILERRA

Egunak: **abenduak 10 eta 17**, ostegunak, 20:00etan.

Lekua: Ibaialdeko lokalak.



Iazko taldearen une bat.

Emalea: Oskar Estanga.

Izena emateko epea: azaroak 30, astelehena, 14:00ak arte, Euskara Zerbitzuan.

Prezioa: 8 €.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.

NAFARROA OINEZEKO AUTOBUSA

Nafarroa Oinezeko edizio berri batez gozatzeko irteera **Etxarri Aranatzera**.

Data: **urriak 18**.

Irteera:

9:30ean Eguzki plazan (Mutiloagoiti).

9:45ean San Pedro Ikastetxean.

(Mutiloabeiti).

Itzulera:

21:00etan San Pedro Ikastetxean

(Mutiloabeiti).

21:15ean Eguzki plaza (Mutiloagoiti).

Prezioak: 10 € errolatuak, 15 € errolatu

gabeak.

Izen emateak: urriaren 12ra arte, Aranetxean.
Informazio gehiago Aranetxean.

BERTSOLARI TXAPELKETA FINALERA AUTOBUSA.

Txapelketa honen beste edizio batez gozatzeko irteera **Bilbao Exhibition Centre-era**.

Eguna: **Abenduak 13**.

Irteera:

8:30ean Eguzki plazan (Mutiloagoiti)

8:45ean San Pedro Ikastetxean (Mutiloabeiti)

Itzulera:

22:00etan San Pedro Ikastetxean (Mutiloabeiti)

22:15ean Eguzki plazan (Mutiloagoiti)

Izen emateak: abenduaren 10era arte Euskara Zerbitzuan.

Antolamenduak ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: **hautzaindegia** (abenduak 5a baino lehen egin behar da eskaera), autogestionatutako bazkarietarako **mahaiak**, **menuak** 18 eurotan (erreserbak hemen: <http://www.bertsozale.com/>)

<http://www.bertsozale.com/>)

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.

EUSKALDUNEN FITXATEGIA

Aranguren Ibarrean errolatuta egonik, euskara gaitasunen bat eta 2 urte baino gehiago duenak, eta bere datuak Euskaldunen Fitxategian egoteko interesa duenak, **Euskara Zerbitzuan** aurkituko duen **galdetegia** bete dezake.

SMS edo POSTA BIDEZ GURE ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA JASO NAHI BADUZU, BIDALI POSTA BAT euskera@aranguren.es HELBIDERA INFORMAZIOA EUSKARAZ, EDO ELEBITAN JASO NAHI DUZUN ZEHAZTUZ.

ARGITALPENAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Arangurengo Udalak argitaratutako «*Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren*» argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaitez Euskara Zerbitzuarekin harremanetan. Errolatuentzako **doako aleak** daude.



Udalaren helburua Ibarreko taldeekin elkarlanean aritzea da. Horregatik, Udaletik gizarte eragile eta norbanako guztiei hizkuntzaren normalizazio prozesu honetan parte hartu eta inplikatzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

EUSKARA ZERBITZUA
Eskoletako k/9, Mutiloabeiti
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara
948 15 13 82
euskera@aranguren.es
www.aranguren.es